

Desorekak eta erronkak Ekialde Barrutian: Hezkuntza arloa

IRITZIAK

2019, irailak 23

PLAZANDREOK, AHM, HERRIPE, IZBE, INTXAURDI, INTXAURRONDO
BERRI, OSTEGUNA

2018. urteko erdi aldera martxan ipini zen Ekialde Barrutiko juntaren osaketak (Altza, Intxaurren eta Mirakruz-Bidebieta), ahalbideratu du gune hauetan modu berezian islatzen diren hirigintza eta sozial arazo jakin batzuk hobeto azaleratzea. Egoera hauek modu partzialean eta era intuitiboan ezagunak ziren baina kontrastatzerakoan garbi azaltzen dute udal politikak gune hauetan bizi garen emakume eta gizonen beharrei modu eraginkor eta berezian erantzuten duten diseinua behar dutela.

Barrutiak Donostiako biztanleen ia %25ren osatzen du (44.725 pertsona), eta hauetatik %51 emakumeak dira. Biztanle kopuru handia osatzen dugu, Errenteria udaleko kopuruaren hantzekoa. Gipuzkoako udalerrien barruan bakarrik Irunek biltzen ditu Barrutiak baino biztanle gehiago. Kasu batzuetan bikoiztu eta besteetan erraz gainditzeko dituzten lurralde historikoko herri jendetsuenak: Andoain, Arrasate, Azpeitia, Beasain, Bergara, Eibar, Elgoibar, Hondarribia, Hernani, Lasarte-Oria, Oñati, Pasaia, Tolosa, Zarautz...¹

Barrutia osatzen duen auzo bakoitzak bere ezaugarri propioak izan arren, garbi ikusten da beraien artean zenbait ezaugarri eta erronka komunak dituztela. Une honetan ditugun datuak kontutan hartuz, ikusi ditzakegu Barrutiko jendearentzat ahuldadeak diren zenbait antzekotasunak, baliagarria izan daitekeena sakoneko irtenbideaz pentsatzen hasteko eta desoreka garrantzizkoen aurre egiteko.

Horrela, hezkuntza atalean, Barrutian analfabetismoa tasa hiriaren batez besteko (%3,4) baino bi puntu altuagoa da (%5,6). Bi esparruetan handiagoa da emakumeen artean (%5,9 eta %3,6 hurrenez hurren). Eskola behar baino lehenago uzteko joera ia 3 puntu handiago da (%9) eta (%6,3) Donostian. Euskararen ezagutza eta erabilera barrutian hiriko maila baxuenetan aurkitzen da ere.

Goi mailako ikasketa ekipamendu eta errealtate sozialaren egoera gutxienez deigarri bezala izendatu daiteke. Barrutian goi maila eta unibertsitate ikasketak dituzten pertsonen kopurua (%16,3) ia hiriaren erdiaren kopuruan (%30,3) kokatzen da. Azpimarratu daiteke Barrutian unibertsitate ikasketak dituzten emakumeen kopurua gizonenak baino bi puntu altuagoa dela. Hala ere emakumeen arteko langabezi tasa urteetan zehar beti mantendu da gizonenak baino altuagoa.

Barrutia-Hiria desoreka hauek kontutan hartuz, gutxi formatutako langile tipoa etorri zela lurraldera bizitzera 60-70 hamarkadetan, arrazoi historikoak eduki ditzakete. Hala eta guztiz ere, belaunaldiak berriro dira eta unibertsitate iristeko aukerak nabarmen zabaldu dira, aztertzea da zer nolako eragina eduki duen egoera gogor honetan, goi mailako ikasketa guneak bizitza guneetatik azken urteetan urrutiratze prozesuak.

70². hamarkadaren hasieran, Altxako kasko zaharrean Juan XXIII Lanbide Heziketa Institutua izan zen eraikinean Petrokimika espezialitatea eskaintzen zuen Zientzi Kimiketako fakultatea kokatu zen. Mirakruz gainean Arkitektura Fakultatea eta Ategorrietan Magisteritza. Emakumeek gero eta gehiago eskatzen zituzten karrera hauek. Laurogei eta hamargarren hamarkadaren hasieran ia unibertsitateko fakultate guztiak zentralizatu ziren Antiguako Ibaeta campusean, justu hiriaren beste aldean, Barrutitik gune urrunenean, gure auzoetatik desagertu ziren aipatutako ikasketa zentroak.

Hezkuntza egoera hau ere agian lotu daiteke lanbide hezkuntzarekin gertatu denarekin, denborak aurrera egin duen heinean Altxan lehen kokatzen ziren espezialitateak desagertu egin dira. Lehen aipatutako Lanbide Heziketako Juan XXIII Institutuan 70. hamarkadan, Administrazioa, Delineazioa, Kimika, eta Mekanika espezialitateak ikasten ziren, hauetan emakumeen presentzia nabarmena zen. Jarraian Administrazio Publikoaren eskutara pasa zen eta eraikuntzarekin lotura zuten zikloak besterik ez ziren eskaintzen ia bakarrik gizonenak osatzen zuten ikasleria. Oraindik larriago, duela hiru urte eskas Lanbide Heziketa ikasketak guztiz desagertu ziren Altxan, 50 urteko ibilbidea eduki eta gero.

Jakina da etxebizitza eta hezkuntza zentroen arteko hurbiltasunak indartzen dutela neska eta mutilak ikastera bultzatzeko beharrezkoak diren jarrera eta giro komunitarioak. Distantziak ere eragina du gazteek eta familiek

bere ikasketa motak hautatzeko garaian, joan etorriak eta egonaldiak dakarten gastuak jasan ezinak bihurtu daitezke Barrutian errenta baxuak eta egoera prekarioa duten zenbait familientzat, eta horrelako egoerak bizi dituzten etxe asko daude Barrutian.

Edozein komunitatearen garapenerako hezkuntza lehen oinarrietako bat izanik, guztiz beharrezkoa ikusten dugu hurrengo urteetan Barrutiko Batzordetik eta Donostiako Udaletik arreta eta esfortzu berezi bat gauzatzeko bidea egitea hezkuntza alorrean. Barrutia eta Hiriaren artean dauden eta aipatutako ezberdintasun adierazgarriak eta bestalde ditugun beste arrakala sozial nabarmenak: Gizonak eta emakumeen artean, lana lortzeko aukerak, diru sarrera mailak, komertzio txikiaren egoera ... desagertzen joan behar dute komunitate kohesionatuagoa lortzeko helburuz.

¹ https://es.wikipedia.org/wiki/Anexo:Municipios_de_Guip%C3%BAzcoa

² <https://europaplazara.blogspot.com/1992/09/onati.html>

³ <https://www.ehu.eus/es/web/kimika-zientziak/historia>

Ekialde Barrutia: Itxuratik haratago, zer?

HERRIPE - INTXAURDI - IZBE - OSTEGUNA / AHM - EMANHAR - PLAZANDREOK
(Barrutiko Batzarraren elkarteak)

2015eko apirilak 13an, Donostiako Udalak hirian osatu nahi zituen lau barrutiak arautzen zituen araudi organikoa argitaratu zuen, barne Ekialde Barrutia[1]. Altza, Intxaurren eta Bidebietako zenbait elkarteek ia bi hamarkada bilera eta aldarrikapenetan pasa eta gero. 2018ko ekainean hauteskunde prozesua bete eta gero Ekialde Barrutiko junta martxan jartzen da. Argitaratutako araudiak dionez batzorde hauek kontsultarako besterik ez dira, ez dituzte elkarteek eskatzen zituzten eskumenak eta ez dira erabakigarriak Barrutiarentzat erabakitzen den aurrekontuari buruz, horrela hasieratik ez ziren betetzen elkarten eskakizunak.

Hala ere elkarteek hauteskunde prozesuan parte hartzea erabaki genuen, pentsatuz partaidetza gune berri honek agian Altza udal zaharreko eremuan dauden harremanak indar zitzakeela eta era berean uztartu elkarten arteko lan amankomuna ditugun arazo berdintsuen aurrean, kasu batzuetan hiriko beste zenbait guneetan daudenak baino larriagoak izanda hauek.

Barrutiko Junta, oraintxe funtziotan dagoena, 8 elkarten ordezkariarekin osatu zen, 4 auzo elkarten izenean(Herripe, Izbe, Intxaurren, Osteguna) eta 4 sektorialak (Altza, Histori Mintegia, Auzoa, Emanhar, Plazandreok) eta alderdien 7 ordezkariarekin, 2 PSE-EE (Lehendakaria), 2 EAJ-PNV (Lehendakari ordea), 2 EHBildu, 1 PP, gehi Irabaziz hitzarekin baino bozkarik gabe. Alderdien artean hiru emakume dira eta 2 elkarten izenean, horrela emakumeen presentzia %30ekoa besterik ez da.

Ibilbidea oso motza izan da, 15 hilabetekoa besterik ez, justu aurreko udal legealdiaren azken urtea. Benetan motzagoa izan da, tartean 2018ko uda eta 2019ko (uztaila, abuztua eta iraila) izan ditugu eta justu azken hiru hilabeteetan ez da bideratu Juntarako deialdirik. Nahiz eta denbora laburra izan elkarten parte hartzea eraikitzailea, dinamikoa eta oso bizia izan da.

Inplikazio horren ondorioz 5 lan talde osatu ziren, lau taldeetan ardura, elkarten ordezkarien gain geratu zen eta azkena EHBilduren ordezkari baten esku: 1." Diagnostikoak", 2."Hirigintza, Irigarritasuna eta eremu publikoak", 3."Partaidetza eta Komunikazioa", 4."Aurrekontuak eta Egituraketa", 5."Berdintasuna". Ibilbide motz honetan parte hartu dugu lan taldeko 12 bileretan, Juntako 8 saioetan eta 2 asanblada irekietan[2].

Esfortzu garrantzitsu honen balorazioa egiteko orduan argiak eta itzalak ikusten ditugu.

Alderik positiboenean onartu zen aurrekontu parte-hartzailearen zati bat, 370.100 euro, Batzarreko elkarteetatik proposatutako proiektuetara bideratzea. Aipatzekoa da 2019ko aurrekontu-gastuari buruz egindako proposamen guztiak Batzarrean adostu direla, negoziazio eta adostasun prozesuen bidez, bozketara jo beharrik gabe. Esparru horretan, 23 proposamen onartu dira, baina gauzatu zain daude[3].

Inguruko elkarte-ehuna indartzeari dagokionez, aurrekontu parte-hartzaileko proiekturik bozkatuenera txirikorda bat egiteko proposamena onartzea erabaki zen, auzoen arteko gastua orekatzeko asmoz.

Era berean, barrutiko elkarte guztiei irekitako 6 bilera egin dira, prozesua baloratzeko eta batzarrean aurkeztu beharreko proposamenak adosteko. Horietako batzuetan beste auzo elkarte batzuek parte hartu dute, hala nola Santa Barbarako Elkartasuna eta Oleta elkarteak, baita Intxaurren Berri Emakumeen Elkartea ere[4].

Batzarrearen funtzionamendua arautzen duen Barne Araudia landu eta onartu zen, baina ez ziren onartu herritarren eragina handitzeko egindako proposamenak. Batzarreko lehendakariak lantaldeetara eta bileretara joateko aukera eman du, Etxegintza, Hirigintza, Mugikortasun, DBus eta Obra eta Proiektuetako Zuzendaritzako teknikarien eta politikarien zuzeneko informazioa lortzeko. Era berean, bi pertsonako talde teknikoa izan dugu, eta beste bi kontratatu dituzte 6 hilabetez.

Etxegintzaren eta Bulego Estrategikoaren aldetik Barrutiko auzoen egoerari buruzko bi diagnostiko ere egin dira, eta "Diagnostikoen" lan taldeak egindako sintesi bat ere gauzatu da. Horrela, hainbat gizarte-eremutan gure auzoak hiri osoarekiko ahulagoak direla erakusten duten adierazleak daude, baita genero-desberdintasun nabarmenak ditugula ere. Batzarreko azken bileran egindako kronologiaren arabera, azaroan bi saio parte-

hartzaile egitea aurreikusita dago, eta horien emaitzak legealdi berriko planerako eta gobernu berrirako oinarri izango dira.

Dimentsio komunikatiboari dagokionez, dagokion lan taldea komunikazio plan bat egiten saiatu da eta Udalak web orri bat zabaldu du Ekialdeko Barrutiko informazioarekin.

Nahiz eta emaitza horiek aipatu, esperientzia honetan identifikatu ditugun itzalak oso garrantzitsuak dira etorkizunean Barrutiaren funtzionamendua behar bezala garatzeko. Tamalez, koordinaziorako eta erabakitze arin eta eraginkorrerako udal egitura politiko eta tekniko baten falta identifikatu dugu.

Parte-hartze formula horretaz guztiz konbentzita ez dagoen Gobernu Talde bat antzeman dugu, eta Gobernu Taldearen desadostasunak barne funtzionamendura eraman dituzte behin baino gehiagotan, horrela eguneroko lan dinamikak oztopatuz.

Erakunde honen izaera aholku-emailea eta elkarteen jarrera eraikitzailea izan arren, udal arduradunen beldurra ere sumatu dugu herritarrek ohikoa baino zabalagoa izan daitekeen parte hartzeko organo bat garatzeko orduan.

Beste aldetik, elkarteen proposamenetatik abiatuta egindako diagnostikoak oraindik ere ez dira nahikoak Altza, Intxaurren eta Bidebietako jendeen benetako beharrak antzemateko. Gainera, genero ikuspegia ia ez da existitzen, eta datuen eskasiak emakumei eragiten dieten desberdintasunak murrizteko irtenbideak bilatzea oztopatzen du.

Horri gehitu behar zaio Batzarrean onartutako 23 proposamenetatik oraindik ez dela bat bera ere gauzatzen hasi, eta ez digutela haien egungo egoeraren berri eman hiru azken hilabeteetan, denbora horretan ez dute Batzarra biltzera deitu nahiz eta jardun egoeran egon.

Udal proiektu garrantzitsuak egiten jarraitzen dute gure auzoetan, Juntak gutxieneko informaziorik jaso gabe. Barrutiari buruzko informazio eskasa desagertu egin da Udalaren webgunearen hasierako orritik, duela hilabete batzuk bertan jarri bazuten ere.

Postaz baino ez digute jakinarazi Batzordeko Presidentetza eta Lehendakariordetza aldatu direla eta hauteskunde aldi berria hasi dela.

Joan den astean, irailaren 30erako deitu gintuzten jarduneko Batzordearen izaera ematen ez zaion bilera batean parte hartzera. Onartutako proiektuen egoerari buruzko dokumentazioa aldeztu aurretik helarazteko eskatu genuen, eta ezinezkoa izan zen ezer bideratzea, proiektu horietan lanean ari zirelako. Bileran, dokumentu ugari aurkeztu zitzaizkigun, gutxi landuta eta zehazteke kasu gehienetan, eta horrek ezinezko egiten zuen inongo azterketarik egitea momentu horretan.

Azken batean, pentsatzen dugu jarduteko modu hau ez dela egokia izaten ari erabaki politikoak herritarrengana hurbiltzeko asmoa duen partaidetza-espazio bat bultzatzeko. Guztiz kontrakoa, belaunaldi helduen artean sinesgabetasun eta higadura jarrerak indartzen ditu, eta emakume eta gizon gazteenen belaunaldiak uxatzen ditu.

Barrutiaren eraketak herritarren partaidetzan eta tokiko beharren asetzeari abantailak ekar ditzakeela uste dugu, baina, horretarako, bidea jorratzera animatzen ari direnak zaintzeko, eta hartzen diren erabakiak irimotasunez aurrera eramateko konpromisoari eutsi behar zaio.

[1] Beste barrutiak hauek dira: 2. Erdialdeko Hegoaldea barrutia: Erdialdea, Amara, Loiola eta Martutene; 3. Mendebaldeko barrutia: Añorga, Antigua, Ondarreta, Aiete, Ibaeta, Igeldo, Miramon, Zorroaga eta Zubietia; 4. Ipar-ekialdeko barrutia: Ategorrieta, Ulia, Egia eta Gros.

[2] Aldi berean, Batzarreko hainbat elkarte aurrekontu parte-hartzailean, proposamenak aurkeztu eta bozkatzeko kanpaina egin zuten. Hiriko bozkatuenetako bat Herrerako puntu kritikoak izan ziren. Batzarreko kide ez diren beste elkarte eta norbanakoek ere aurkeztu zituzten proposamenak, eta haiek aukeratuak eta bozkatuak izan ziren.

[3] Horien artean euskara, berdintasuna, kirolak, Altzako korporazio zaharreko altzariak eta mugikortasunari, aisialdirako guneak, kultur ekipamenduei, tokiko monetari, lurraldetasunari, mapa turistikoari eta abarri buruzko ikerketak daude.

[4] Lantaldeetan beste pertsona eta erakunde batzuek ere parte har dezaketenez, Donostia Hiria eta Emakumeen Foroaren parte hartzea izan dugu. Berdintasun proposamenak egiteko lanetan Larratxoko Ostadar

Emakumeen Elkarteko eta Intxaurrondo Berri Emakumeen Elkarteko kideek parte hartu dute. Puntu kritikoen prestakuntzan eta jarraipenean Alzako Kulero Moreak emakume gazteen taldeak ere parte hartu du. Horrez gain, Barrutiko batzar irekietara erretiratuen elkarteak joan dira, eta aniztasun funtzionalarekin zerikusia duten beste batzuk ere bai.

Ekialdeko barrutia, parte-hartze hutsala

Iritziak
2020, Uztailak 23

Iazko urriaren hasieran, aurreko legeintzaldian Ekialdeko Barrutiko Batzordea osatzen genuen 8 elkarteok Barrutiak bi urtez egindako ibilbideari buruzko balantzea egin genuen, argi-ilunak adieraziz. Bederatzi hilabete geroago, gure balorazioa askoz ilunagoa da.

Orduan ere agerian utzi genuen Udalaren egitura ez zegoela ez teknikoki ez politikoki prestatuta barruti bat izateko, eta Batzordearen erabakiek ez zutela benetako zilegitasunik, gobernu-taldearen oniritzi formala izan arren.

Praktikan, oztopo horien ondorioz, 2019an gauzatzeko onartutako 23 proiektuak 2020. urtera aldatu behar izan ziren.

Gaur egun, egoera askoz larriagoa da, 2019ko aurrekontuaren exekuzioa % 1etik beherakoa baita.

Gainera, murrizketa handiak aurreikusten ditugu, nahiz eta Batzordeak bi urte horietan egindako lana errespetatzeko erabakia hartu berri duen. Proiektu hauen exekuzio azkarra exijitzen dugu.

2020ko aurrekontuari dagokionez, Batzordean 40 proiektu baino gehiago aztertu ditugu, eta ez dugu inola ere jakin zer murrizketa-portzentajeri aurre egin behar diogun. Horietatik 10 lehentasunezkoztat jo dira.

Gauden urte-sasoian egonda, eta egungo egoeran, proiektu horien guztien garapena oso zalantzazkoa da.

Baldintza horietan ondorioztatu dugu Ekialdeko Barrutiko herritarren partaidetzarako guneak ez duela funtzionatu eta ez dituela betetzen abian jartzeko adostu ziren helburuak, Batzordea osatzen dugun elkarteek ahalegin handia egin duten arren.

Hori dela eta, uste dugu egoera horrek berehalako berrikuspena eskatzen duela, Barrutiko Batzordean erabakitako proiektuak gauzatzen jarraitzea bermatu eta ahalbidetzeko.

Berrikuspen hori egin gabe, bultzatutako lantaldeetan eta Batzordean bertan dugun parte-hartzea birplanteatuko dugu.

AHM, Altzania, Elkartasuna AA.VV, Emanhar, Herripe, Intxaurdi, Intxaurreondo Berri, IZBE, Oleta Auzo elkarteak, Ostadar emakumeen elkarteak, Osteguna, Plazandreok, Showtime

Lankidetza falta Ekialdeko Barrutiarekin

IRITZIAK

2020, urriak 2



2020ko irailaren 16an Ekialdeko Barrutiko Batzordearen ohiko bilera egin zen (Altza, Bidebieta, Intxaurrondo). Bertan, Martin Ibabe Lehendakariak adierazi zuen ez zegoela erabaki irmorik barrutiaren 2019 eta 2020ko aurrekontuetan aurreikusitako proiektuak exekutatzeari dagokionez. Hurrengo egunean, El Diario Vasco egunkariak albiste hau argitaratu zuen: “Los proyectos del distrito Este quedan en suspenso por la pandemia”, Udaleko Lehendakariatzako Zuzendari Manu Narvaez zitatuz.

Tamalez, ez da lehen aldia udal gobernua egia ezkututzen digula. Ekialdeko Barrutia eratu zenetik, etengabekoa izan da Udalaren aldetik lankidetza falta izan denaren kexa. Batzordeko 8 elkarteok askotan adierazi dugu koordinazio eta komunikazio falta dagoela, eta horrek aurrera egitea eragozten duela.

Barruan esan dugu, Batzordean, lantaldeetan, sailekin egindako bileretan; eta kanpoan, prentsa-oharretan eta artikuluetan, auzoetako elkarteekin egindako koordinazioetan. Baina egoerak hobera egin beharrean, okerrera egin du azken legegintzaldian.

Barrutitik bideratutako proiektu gehienak, denak ez esatearren, blokeatuta daude hasiera-hasieratik. Informazio falta sekula bainolarriagoa da. Udal Gobernuaren aldetik egia jakitea ezinezkoa da. Herritarren partaidetza organoa behar lukeenak burokratizazio maila ikaragarri altuak garatu ditu. Departamentuetako zinegotzi arduradunek ez diote jaramonik egiten Barrutiko Batzordearen eskaerei. Hamaika adibide daude.

Blokeo egoera horren aurrean eta erabateko informazio falta ikusita, behean sinatzen dugun elkarteek eskatzen dugu:

- 1.-Barrutiko Batzordearen ezohiko bilera dei dezala Lehendakariak urriaren 14rako/urriaren 12ko aste horretarako.
- 2.-Ezohiko deialdiaren gai ordena puntu bakarra izango du: Donostiako Udala eta Ekialdeko Barrutiaren arteko lankidetza falta.
- 3.-Ezohiko bilera horretan Donostiako Alkate Eneko Goia eta Ogasun eta Finantza Zinegotzi Jaime Dominguez-Macaya present egotea exijitzen dugu. Bi kargu hauek ez egotekotan, ez dugu bileran parte hartuko.

Horrela adierazten eta sinatzen dugu Batzordea osatzen dugun elkarteek eta lantaldeetan parte hartzen duten edo haiekin koordinatuta dauden Altza, Bidebieta eta Intxaurrondoko beste elkarte batzuek.

Altzan, 2020ko urriaren 2an.

Elkartasuna AE, Herripe AE, Oleta AE, Izbe AE, Altzania, Emanhar, Plazandreok, Showtime. Altza XXI Elkimena, Altzako Historia Mintegia, Altzako Kulero Moreak, Bizarrain Euskara Elkartea, Intxaurrondo Berri Emakumeen Elkartea, Intxaurdi AE, LODABE (Lorete, Darieta, Berra) AE, Ostadar Larratzoko Emakumeen Elkartea, Osteguna AE.

Ekialdeko Barrutia: Sei urteko lana ¿Noruntz goaz?

IRITZIAK

2023, apirilak 26



Elkarteak BAI (Bidebieta, Altza, Intxaurrondo)

Adierazpen honek bi legealdi hartzen duten sei urte hauetan Ekialdeko Barrutiko organoaren dinamikan zuzenean (Barrutiko Batzarraren eta bere Lantaldeen bidez) edota zeharka (parte hartzeko eta lankidetzan aritzeko beste espazio batzuen bitartez) parte hartu eta osatu dugun elkarteetatik egiten dugun ebaluazioaren zati bat jasotzen du.

Laburpena

Balorazio positiboa

- Hainbat diagnostiko kuantitatiboak eta kualitatiboak egin dira.
- Auzo-elkarteetako eskaera historikoei erantzun zaie.
- Emakumeen memoria eta ahalduntzea sustatzeko jarduera nabarmena egon da.
- Altzako Udalaren eta memoria historikoari dagokionez aitorpen garrantzitsuak egin dira.
- Euskararen ikaskuntza eta erabilera eta kultura-integrazioa sustatzen dituzten jarduerak babestu dira...
- Ahalegina dago Barrutiaren beraren barne-dinamika sendotzen saiatzeko.

Balorazio negatiboa

- Udal Departamentu gehienekin komunikazioa eta lanaren funtzionamendu eskasa.
- Lortutako emaitzen ikusezintasuna.
- Lan karga astuna elkarteek ordezkariei gain.
- Herriarrek eta gainerako elkarteekin komunikaziorik ez izatea.
- Herriarren parte-hartzerako sustapen hutsala..
- Barne funtzionamenduak parte hartzaileen nekea ekarri du.
- Elkarrekin sinatzaileok uste dugu Ekialdeko Barrutiaren instituzionaltasuna hobetu behar dugula, eskumenak, parte hartzeko kultura, eraginkortasuna eta gaitasuna indartuz.

Oro har, transmititzen ditugun sentsazioak ez dira gozoak. Ekialdeko Barrutiko mahaia, gure ustez, bere xedeak lortzeko espazio eta mekanismo baliagarriak eskaini ditzake: herritarrek gai publikoetan duten parte-hartzea sustatu eta indartzea, herritarren eta talde antolatuen beharrak eta lehentasunak modu zehatzagoan eta zuzenagoan identifikatuz tokiko erakundearen praktikotasuna fintzea, eta horrekin gastu publikoa eraginkortasunez murriztea. Batzarrak herritarren beharrei eta ekimenei erantzuteko organo bat eskain dezake, ordezkari politikoen eta elkarten arteko hurbiltasun-mekanismoak sortuz eta, horrela, deliberazio-gune propioen eta baliabide propioen bidez, Barrutiko auzoetan Udalaren praktika instituzionala deskontzentratzea lortuz. Gainera, hau ere esan beharra dago, Batzordearen eta Lantaldeen mahaia osatu duten pertsonen taldea lan izugarria egin du, beren auzoekiko eta aldarrikapen partikularrekiko konpromiso handia erakutsiz: adin, sentsibiltate eta ekintza-eremu askotako kideak, komunitate-ekintzan esperientzia dutenak eta interesik gabe lankidetzan aritzeko interesa erakutsi dutenak.

Bi legealdi horietan lortu diren emaitzak, Ekialdeko Barrutiko organoen lanagatik izan ez balitz, ez ziratekeen gauzatuko: Ekialdeko Barrutiko auzoetako diagnostiko kuantitatiboak eta kualitatiboak egin dira, plaza eta gune nagusietan hirigintza-jarduerak egin dira, alde zuzenetik parte hartzeko prozesuak gehitu dira, auzo-elkarteetatik etorritako eskaera historikoei erantzun zaie, emakumeen memoria eta ahalduak sustatzeko jarduerak nabarmenak izan da, kultura-jarduerak lagundu dira, Altxako Udalaren aintzatespen historikoa sustatu da, memoria historikoa buruzko beste aintzatespen garrantzitsu batzuk egin dira, euskararen ikaskuntza eta erabilera eta integrazio kulturala sustatzen duten jarduerak finantzatu dira... eta, horrez gain, Barrutiaren beraren barne-dinamika eratzeko etengabeko ahalegin eta saiakera kolektiboa egin da.

Oraindik ere agerikoa da, ordea, Ekialdeko Barrutian herritarrek parte hartzeko duten argitasun, ordena eta erraztasun falta. Barne-funtzionamenduak desilusionatu eta higatu egiten du batzutan, eta horixe da egin nahi genukeen adierazpena. Organo honekin bilatzen dena lortzeko ebatzi beharko liratekeen funtsezko alderdi batzuk aipatzen dira jarraian:

- Erakundeekiko bitartekariak: Batzarkideen eta Udaleko sailtako erreferentziazko funtzionarioen arteko harremana ez da batere eraginkorra, eta batzuetan badirudi haien funtzioak oztopatzen ari direla, lanez lepo egoteagatik eta Barrutiko ordezkariak ematen zaien lehentasun faltagatik (salbuespenak salbuespen, Berdintasun Saila esate baterako).
- Dokumentu eta artxibo publikoen eskuragarritasuna: Batzarraren eta lantaldeen eginkizunak garatzeko beharrezkoa den dokumentazioaren errekerimendua askotan ez da behar bezala betetzen.
- Egutegia eta barne-plangintza: Barrutiko Batzarraren ekintza instituzionala planifikatzea, presaka eta korrika funtzionatu beharrean, bere barne-funtzionamendua aurreikusteko eta errazteko moduan. Oraindik asko dago egiteko zentzu horretan.
- Bileretako dinamika: Bileren eraginkortasuna hobetzea garrantzitsua da, eta horretarako bidelagun baten laguntza teknikoa izatea aldea egin dezake, herritarren denbora eta borondatezko ahalegina ahalik eta modu eraginkorrean baliatzeko.
- Barne-funtzionamendua sendotzea: Barrutiaren funtzionamenduaren oinarritzko prozedurak sistematizatu gabe daude, eta prozedura horiek erakundearen funtzionamendua egituratzen dute; are gehiago, prozedura horietako batzuk alde batera uzten dira, eta ez dira prozedura horiek hobetzen ahalegintzen.
- Aktak erregistratzea eta jasotzea: Akta jasotzeko eta laburpenak egiteko lanak elkarreterako kide diren batzarkideen sorbalden gainera doaz gehienetan, eta hori aparteko ahalegina da.
- Jarraipen falta: Batzarkideok ez dugu ia eguneratzerik jasotzen bere baitan sustatu diren proiektuen garapenari buruz, batzuetan proiektuaren erreferentziazko pertsonak berak ere ez. Horrela, galdu egiten da esfortzu eta emaitzaren arteko lotura, eta hurrengo kasuetarako baliagarriak diren ikaskuntzak ere.
- Azken likidazioen berri ez izatea: Salbuespen gutxi batzuk salbu, batzarretik ez da sustatu diren proiektuen azken gastuen berri ematen, eta horrela, ezin zehatz-mehatz jakin zenbateraino asmatzen den aurreikusitakoarekin, zenbat diru sobratu den edo faltatu delako udaleko sailak jarri behar izan duen.
- Parte-hartzearen kultura: Ia ez da existitzen Batzordeko kideei prozedura administratiboaren inguruan sensibilizatzeko pedagogiarik, eta herritarrek erakunde publikoen denbora eta egiteko moduetara

egitea ez da erraza laguntzarik gabe. Horrela, gainera, Barrutiko Batzarreko parte-hartzea demokratizatzen da.

- Auzoen mugaketa eta izendapena: Udalak, Barruti barruan eremu nagusiak bereizteko sortu dituen “auzoen” banaketa eta izenak irizpide administratibo hutsari jarraitzen dio, lurraldean betidanik eta modu naturalean sortu eta erabili diren berezko banaketari muzin eginez. Horrek, lurraldean modu orekatuan eta eraginkortasunez ekitea oztopatzen du.

- Batzarraren azken xedea: Era berean, ez da organo honen ametsezko helmugaz eta desiozko funtzionamenduaz inongo proiektiorik egiten, ezta oinarrietan babesten diren printzipio eta filosofiak gogora ekartzen.

- Herritarrekiko eta beste elkarteekiko komunikazioa: Herritarrei Batzarraren eta Lantaldeen lanen berri emateko sortutako baliabideez egiten den erabilera ez dago batzarkideen aldetik guztiz baliozkotua, eta batzuetan badirudi erabilera hori beste interes batzuekin nahasten dela, Barrutiko Batzarraren berri eman eta bere erakundetzeari alde egin beharrean.

Barneratutako dinamika horiek aldatu behar dira, Ekialdeko Barrutiak parte-hartze eraginkorreko eta iraunkorreko benetako kultura ahalbidetu dezan; izan ere, informazioa oztopatzeari sortzen den gogaitasunak, sailen arteko lankidetzak, hartzen diren administrazio- eta idazkaritza-lanen zamak, bidelaguntza- eta dinamizazio-ekak, lortutako fruituen ikusezintasunak, alderdien hauteskunde-interesek Batzordearen jardunbidea lohitzek... erakunde publikoekiko eta inguruan dauden interes-taldekiko dagoen mesfidantza areagotu besterik ez du egingo, eta bizilagunen elkartze-gaitasuna ahuldu, eskualdea elkarrekin batera aurrera egiteko beste aukera bat galdu, herritarren ekarpena barnebilduz gauzak errazteko beharrezkoa den egituraketan indarra jarri beharrean.

Udal Gobernu berriak, elkarteek partaidetza-organo horri egiten dizkiogun errekerimenduei erantzuna eman beharko lieke. Horretarako, batzarkideak bileretako aktak idazteko lanetatik askatzeko konpromisoa hartu beharko luke, sailekiko lotura instituzionalak optimizatzea, batzarkideek eskatutako informazioa partekatzea urtebetez baino gehiagoz behin eta berriro eskatzen aritu behar izan gabe, Barrutiko auzoen barne-banaketa zentzuz eta modu adostutan zatitzea euren arteko ezberdinketa zentzugabeak sor ez daitezen, Batzordearen tempusak, formak, dinamikak, sortzen ari diren aurrekariak, helburuak, filosofia... islatuko dituen material grafikoa sortzea, batzarkideei ez ezik, Barrutiko herritar guztiei ere aurrerapenen berri emateko balioko lukeena, informazioa emateko beste asmorik gabe eta, guzti horretarako, beharrezkoa balitz, teknikari gehiago kontratatuz.

Azken finean, Ekialdeko Barrutiko praktika instituzionala hobetzea da nahi duguna, partaidetzaren, eraginkortasunaren, konfiantzaren... kultura indartuz. Noiz, eta esperientzia instituzional txarrek herritarrek adoregabetu eta, gainera, ordezkarien funtzioa gutxiestera eramaten den garai honetan.

Sinatzaileak: AHM - Altzako Historia Mintegia, Altzania, Emanhar, Intxaurren Berri Emakumeen elkarte, Plazandreok, Auzo Elkarteak (Bideak, Elkartasuna, Herripe, Osteguna, Oleta, Lodabe, Izbe, Buenavista)

EKIALDEKO BARRUTIA



Sei urteko lana ¿Noruntz goaz?

Balorazio positiboa

Hainbat diagnostiko kuantitatiboak eta kualitatiboak egin dira

Auzo-elkarteetako eskaera historikoei erantzun zaie

Emakumeen memoria eta ahalduentzea sustatzeko jarduera nabarmena egon da

Altzako Udalaren eta memoria historikoari dagokionez aitorpen historiko garrantzitsuak egin dira.

Euskararen ikaskuntza eta erabilera eta kultura-integrazioa sustatzen dituzten jarduerak finantzatu dira...

Ahalegina dago Barrutiaren beraren barne-dinamika sendotzen saiatzeko.

Balorazio negatiboa

Udal Departamentu gehienekin komunikazioaren eta lanaren funtzionamendu eskasa

Lortutako emaitzen ikusezintasuna

Lan karga astuna elkarten ordezkarien gain

Herritarrekin eta gainerako elkarteekin komunikaziorik ez izatea

Herritarren parte-hartzerako sustapen hutsala

Barne funtzionamenduak parte hartzaileen nekea ekarri du

Elkarte sinatzaileok uste dugu Ekialdeko Barrutiaren instituzionaltasuna hobetu behar dugula, eskumenak, parte hartzeko kultura, eraginkortasuna eta gaitasuna indartuz



QR kodean dokumentu osoa

ELKARTEAK BAI (Bidebieta, Altza, Intxaurrenondo)